



AZTERKETA ELEKTROFISIOLOGIKOARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

Zertan datza prozedura?

Azterketa elektrofisiologiko bat eginez, honakoak jakin daitezke: arritmia mota eta larritasuna, arritmiak sortzen diren bihotzaren lekua eta sortzen dituzten nahasmenduak. Gainera, substratu arritmiko bakoitzean aplikatu beharreko tratamendua hobeto bideratzeko balio du.

Zainaren ziztadaren eta/edo arteria femoralaren bidez, hainbat kateter sartzen dira (oso kable finak, luzeak eta malguak), eta bihotzeraino bideratzen dira, X izpien edo nabigazio ez-fluoroskopikoko sistemen bidez kontrolatuta.

Kateterrek bihotzaren oinarritzko jarduera elektrikoa barrutik erregistratzeko balio dute, baita bihotza elektrikoki estimulatzeko ere, eta hori arritmiak diagnostikatzeko beharrezkoa da. Batzuetan, botikaren bat eman behar da probak irauten duen bitartean, arritmiaren diagnostikoa zehazteko.

Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da BARAURIK egotea proba egin baino 6 ordu lehenagotik gutxienez.

Gosariko ohiko botikak ur pixka batez har ditzakezu.

Diabetikoa bazara:

- Aurreko gaueko ohiko intsulina-dosia hartu.
- Ez duzu hartuko diabetesaren aurkako pastillarik hartuko gosarian.
- Prozeduraren aurretiko INTSULINA AZKARRA ez hartu.
- Goizean intsulina basala hartzen baduzu (Levemir®, degludek, glargina...), hartu ohiko dosia PROZEDURAREN ONDOREN.

Hortzordea baduzu, harrera-solairuan sartzean kendu beharko duzu.

Beharrezkoa bada, eskuineko iztaiko ileak soilduko dizkizute, baina, nahi izanez gero, zure etxean egin ahal izango duzu proba egin aurretik.

Non egingo didate inplantea?

5. solairuan, AUO Txagorritxuko D eremuan

Nola egingo didate prozedura?

Azterketa egiteko anestesia lokala erabili behar da.



Ospitaleratze-unitatean hartuko zaituen erizainak zain-bide bat jarriko dizu, ahal dela ezkerreko besoan, prozeduran behar izan ditzakezun botikak emateko.

Ohatilan etzango zaituzte harrera-gelan emango zizuten ohe-atorra jantzita, eta beharrezkoa denean soilik biluztuko duzu zure gorputza. Prozedura osoan zure bihotzaren jardueraren erregistroa ikusteko elektrodoak jarriko dizkizute, baita tentsio arteriala hartzeko mahukatxo bat eta atzamarrean saturimetro bat ere.

Ondoren, oihal kirurgiko bat jarriko dizute zure gorputza estaltzeko, eta eskuineko izterondoaren aldea soilik utziko dizute agerian. Era berean, anestesia lokala emango dizute ziztada egingo den lekuan, prozedura mingarria izan ez dadin.

Prozeduraren iraupena aldakorra da, 1-2 ordu ingurukoa, eta pazienteak ohean egon beharko da hurrengo 6-8 orduetan, prozedura egin ondoren.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Ospitaleratuta egongo zara hurrengo 8-10 orduetan.

Ezingo duzu jan proba egin eta 2 ordu igaro arte.